

Guraso parte-hartzaileak

Alaitz Ikastetxe Publikoko hainbat guraso, euren seme-alaben irakaskuntza prozesuan parte hartzeko ikastaro batean parte hartzen.

Egun agerian dago gure ikasleen gurasoen agerpena gero eta nabarmenagoa dela eskolako jarduera anitzetan. Asko igo da beren inplikazioa euren seme-alaben irakaskuntza prozesuan, eta hori eskertzekoa da, denboraren eza pairatzen ari garen garai hauetan, batik bat.

Xede honekin, geure ikastetxean bi jarduera berezi ari ditugu garatzen azken aste hauetan. Lehenengoa, Iruñeko ILZak antolaturiko Irakurketak Iruzkindun ikastaroa da. Bertan ikastetxeko 15 guraso elkartzen dira eta aurretik hautatutako liburu batzuk irakurri, komentatu eta hausnartu egiten dute, irakurketari buruzko zaletasuna indartzeko. Ordu eta erdiko bost saio egiten dira ikastetxeko liburutegian, hamabostaldian behin, arratsaldeetan, hain zuzen, euren seme-alabak gelan dauden bitartean. Barañaingo liburutegiko arduradun Jesús Aranak eskaintzen du ikastaroa, eta herriko liburutegiak ematen dituen aukerak azaltzen ditu, bidenabar. Ikastaroa maiatzaren 10ean bukatuko da, baina dagoeneko oso positiboa izan da partaideek egin duten balorazioa.